

ITALIA FAXISTAREN DOKUMENTALAK, ESPAINIAKO GERRA ZIBILARI BURUZKOAK (1936-1939)

Mundu osora zabalduzako gerra zibila piztu zuen kolpe hartatik 80 urte igaro diren honetan, kolektiboki hausnar dadin nahi dugu Espainiaren duela gutxiko iraganeko gertaera traumatiko hari buruz, non funtsezkoa izan baitzen Hitlerren eta Mussoliniren laguntza material eta ideologikoa. Helburu horrekin abiatu dugu *Imágenes para la memoria. Iconografía fascista y Guerra Civil Española (2016-2019)* proiektua (Memoriarako irudiak. Ikonografia faxista eta Espainiako Gerra Zibila, 2016-2019), eta horren barruan antolatu dugu zinema ibiltariaren ziklo hau, joan den azaroan Kataluniako Filmotekan inauguratua.

Hala, lehenengo aldiz erakutsiko ditugu Europako artxiboak zehatz-mehatz arakatuta aurkitu ahal izan diren dokumental guztiak, Italia faxistatik ekoizitakoak. Dokumentaletako asko argitaratu gabeak dira erabat; izan ere, lan batzuk ez ziren bere garaian estreinatu ere egin, nazioarteko gertakariak zirela eta.

Irudi txundigarriak dira, eta asko esaten dute Francoren eta Mussoliniren arteko konplizitate estu bezain gatazkatsuari buruz. Lider haien interesak, gainera, barneko eta nazioarteko egoeraren araberakoak ziren, egoera hark baldintzatzen eta bideratzen baitzuen haien ildo politikoa une oro, eta horrek ondorio saihetsezinak zituen haiek beraiek euren kontsigna propagandistikoaren erresonantzia kaxa bihurtu zuten sektorean, hau da, zineman.

Horrenbestez, alferrikakoa litzateke dokumentalotan gatazkaren errealitatea ikusi nahi izatea, errealitate horren irudi ideologizatua erakusten baitute nagusiki. Hala eta guztiz ere, lerro artean eta komunikazio horren asmo propagandistikoetatik harago, eszena askok kontraesan adierazgarriak azaltzen dituzte sarritan, mezuaren zentzuarekin talka egiten dutenak. Komunikazioaren irristaldi hori are nabariagoa da, gainera, lerrotatu gabeko subjektuek hartutako irudiak (edo zuzenean etsai "gorriari" bahitutakoak) politikoki "zuzena" den komentario batekin lotzen direnean ezinbestean, bereziki *footage* motako dokumentaletan. Une horretantxe, gudaroste "gatibu eta armagabe" haren epifaniak eztarriko zuloan korapiloa jartzen die gaurko ikusleei, eta, seguru asko, atzoko ikusle askori ere bai.

Ziklo honetako dokumentalek idealki jarduten dute elkarrizketan *Fu la Spagna! La mirada fascista sobre la guerra civil española* erakusketako (Museu d'Història de Catalunya, 2017ko otsailera arte) argazkiekin. Centro di Studi sul Cinema Italiano zentroak antolatu du erakusketa, eta Daniela Aronica eta Andrea Di Michele dira komisarioak.

I. saioa (mundu osoko estreinaldia)

mahai ingurua eta ondorengo solasaldia

I legionari italiani in Catalogna [1939, 44', JBA gaztelaniaz, BluRay]

Corpo Truppe Volontarie-ren atal zinematografiak eginiko dokumental honek baino ez du jasotzen Bartzelona iparraldeko kanpaina, CTVk egin zuen azkena. Egikera irmoko irudiak erakusten ditu, planteamendu original batekin; beharbada, atala osatzen zuten bi kamerari zibilak ere besoz beso ibili zirelako lanean militarrekin. Kamera, gainera, su lerroan kokatuta egon zen, eta horrek gatazkan erabilitako makineriaren inoizko katalogorik zabalena erakusten digu. Film hau Espainiako Gerra Zibilari buruz Italia faxistatik ekoizti ziren filmen artean ondoen egina daudenetako bat da, eta mundu osoan estreinatuko da ziklo honetan.

II. saioa (105')

aurkezpena Daniela Aronicaren eskutik eta ondorengo solasaldia

Le organizzazioni falangiste a Palma di Maiorca [1936, 10', soinurik gabe, BluRay]

Film labur honek aztergai du Arconovaldo Bonacorsi edo "conde Rossi" alkandora beltz dohakabeak gidaturiko Mallorcako faxistazio prozesua.

¡Arriba España! [1936, 14', JBA gaztelaniaz, BluRay]

Efektu bisual handiko irudiz betetako dokumental honetan, labur azaltzen dira gatazkaren aurreneko hilabeteak, kontsigna falangisten aldera argi eta garbi lerratutako ikuspuntu batetik. Toledo, Palma, eta, batik bat, bi Espainien arteko talka: "benetako" Espainiaren eta bestearen artekoa.

Sulla soglia di Madrid "La Dolorosa" [1937, 9', soinurik gabe, BluRay]

Dokumental honek katapultaz jaurtitzen du ikuslea erortzearen Unibertsitate Hiria pabiloien artera, Madril kanpoaldera. Izan ere, filmaren helburua hiriburua erortzearen zegoela erakustea da, eta horixe da, hain zuzen ere, benetan gertatzen ari zena. Jatorrizko soinua galdua dago, baina banda bisuala arreta handiz muntatua dago.

La liberazione di Malaga [1937, 13', JBA gaztelaniaz, BluRay]

Dokumentalak erakusten du nola egin zuen aurrera Italiako militarrek eta alkandora beltzek osatu zuten zutabeetako batek, Malagan sartu arte. Plano bakoitzean, ikusleei gerrako makineriaren sendotasuna eta eraginkortasuna transmititu nahi zaie, eta soldadu kartsu ugari azaltzen dira kamioiak eta errepide bazterrak betetzen.

La liberazione di Bilbao [1937, 15', JBA gaztelaniaz, BluRay]

Film labur honek borroka zonan kokatzen du ikuslea, "begizko" lekuko bihur dadin. Adierazgarria da erreportaje mota honetan barra-barra agertzen diren topiko guztien katalogoa, mamia eta forma ondo integratuak dituztelako.

Orfani spagnoli in Italia [1937, 11', soinurik gabe, BluRay]

Esparru "nazionalako" publikoaren sinpatia irabazi nahian, haur espainiarrek Erromatik gertuko udaleku batean izan zuten harrerari buruzko dokumental hau egin zen. Italiako banderaren planoek une oro gogorarazten dute nor abiaturik egitasmo solidario eta oparo hura. Ikuspuntu zinematografikotik, eszenarik landuena, dudarik gabe, film laburraren sarrera egiten duena da, haur espainiar haiek atzean utzi nahi zuten izularria dokumentatzen duena.

La fin del frente rojo cantábrico: la toma de Gijón [1937, 8', gaztelaniazko bertsioa, BluRay]

Bildumako guztien artetik, Espainiako bikoizketa originalarekin kontserbatzen den dokumental bakarra da: bitxikeria bat, alderdi guztietatik. Garai hartako dokumentu batzuetan jasota dagoenez, ikusleak nahasirik gelditzen ziren dokumentalaren hizkera ez-profesionalagatik; horrek azkenerako barrezka jartzen zituen guztiak, eta lortu nahi ziren emaitzen kontrakoak lortzen ziren.

La tierra del Cid [1938, 11', soinurik gabe, BluRay]

Muntaketazko dokumental honek loturak ezartzen ditu Espainiako historiako gertaera gorenen eta Espainiaren orainaldi "loriatsuaren" artean. Narrazioa kalkatuta dago Mussolinik Italiako historiaren kapitulu ugari buruz egiten duen interpretazioaren gainean; bereziki, Erromatar Inperioari buruzko interpretazioaren gainean. Film laburra Mugimenduen I. Biltzar Nazionalaren harira egin zen.

La battaglia dell'Ebro [1938, 14', JBA gaztelaniaz, BluRay]

Izenburuak ez gaitzala engaina. Film honek gudu historiko hura gertatu aurretik Ebroko fronte osoan egindako lehen operazioak erakusten ditu, "nazionalak" Katalunian sartu zirenekoa, eta, amaitzeko, Lleida eta Gandesa hartu zituztenekoa azaltzen du.

III. saioa (119')

Volontari [1938, 47', zati handiena soinurik gabe, BluRay]

Gerraren bultzada berritua ospatzeko grinak eraginda, Luce Institutuko norbaitek Italiako espedizio taldearen jardunari buruzko antologia bat bildu zuen. Alabaina, filma loturarik gabe muntatu zen, eta bazter utzi zen berehala, Italiako aginte militar gorenaren protestak zirela eta. Gaur egun, Santander hartu zenekoari eta CTV Miranda de Harotik eta Logroñotik igaro zenekoari buruzko funtsezko dokumentua da.

Los Novios de la Muerte. Il film dell'Aviazione Legionaria nel cielo della Spagna [1938, 30', JBA gaztelaniaz, BluRay]

1938an, bi erakunde berrik Luceren monopolioa hautsi zuten ekoizpen dokumentalari dagokionez, eta Editoriale Aeronauticaren bataioa ezingo zatekeen zinematografikoki hobeto egin. Film hau zinema belikoaren maisulan bat da; kontakizunak arin egiten du aurrera, aireko borrokaren momentu ikusgarrienak neurritz txandakatuz lurreko eszena geldoagoekin, zeinak aurrenekoen arabera planifikatuta baitaude.

Cielo spagnolo [1938, 19', JBA gaztelaniaz, BluRay]

Film labur hau, Italiako aeronautikaren aurrerapenak iragartzeko egina, zinema industrialaren erakuskari interesgarritzat jo daiteke.

¡España una, grande, libre! "Dalla barbarie rossa al trionfo della civiltà fascista", Giorgio Ferronirena [1939, 23', JBA gaztelaniaz, BluRay]


Etsaia irudikatzeari dagokionez, zinema faxistak bete-betean bereganatu zuen zinema "nazionalaren" ikuspegia. Are gehiago, esan liteke alor hau izan zela bakarra bi zinemek gerrako "errealitatearen" interpretazio berdin-berdina egin zutena (emakumeen irudikapenari dagokiona kenduta). ¡España una, grande, libre! horren froga garbia da. Ikuspuntu zinematografikotik, bilduma honetako *found footage* ideologikoaren lan onenetako bat da.

IV. saioa (87')

No pasaran! [sic] [1939, 87', JBA gaztelaniaz, BluRay]

Gerrako gertakari nagusien batura moduko bat da. Muntaketazko dokumental honek lau sekuentzia ditu, mitologia frankista osatzen duten lau kontzepturen inguruan klasikoki antolatuak: Espainia tradizionala; Espainia "gorria"; "errekinkista"; eta garaipenaren predestinazioa. Hirugarren sekuentzia, luzeena, etsaiaren irudikapenaren hari gorriak zeharkatzen du. Horixe da dokumental osotik kontraesan gehien duen kapitulua: banda bisualean komunikazioaren irristaldiak ageri dira behin eta berriz, eta, ziur asko, soinu bandak ugaritu egingo lituzke irristaldiok, baldin eta zati bat galdu izan ez balitz.

Antolatzaileak/Organizadores



Babesleak/Colaboradores

